

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko irailaren 29an

76 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

- Nafarroako Gobernuaren 1999 ekitaldiko komunikazio-gastuen fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina ([2. or.](#)).
- San Adrián Udalarri buruzko fiskalizazio txostena, 1998 ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina ([15. or.](#)).

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Gobernuaren 1999 ekitaldiko komunikazio-gastuen fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egin

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Nafarroako Gobernuaren 1999 ekitaldiko komunikazio-gastuei buruz egindako fiskalizazio-txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Gobernuaren 1999 ekitaldiko komunikazio-gastuen fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egin

AURKIBIDEA

I. Sarrera: Komunikazio-gastuen deskribapen orokorra (2. or.).

II. Helburua, norainokoa eta mugak (4. or.).

III. Ondorioak, iruzkinak eta gomendioak (4. or.).

Eranskina. Informazio osagarria emateko taulak (8. or.).

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak aurkeztutako alegazioak (14. or.).

Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganbarak emaniko erantzuna (14. or.).

1. SARRERA: KOMUNIKAZIO-GASTUEN DESKRIBAPEN OROKORRA

Nafarroako Gobernuaren komunikazio-gastuek, 1999ko aurrekontuaren likidazioaren arabera, 926 milioi pezeta egiten dute guztira; ekitaldirako aurrekontuaren 2. kapituluko gastu guztien ehuneko 3 inguru dira.

“Komunikazio gastuak” izenburupean, gastuen aurrekontuko egituraren 222. kontzeptuari egotzi eta ondokoetatik ondorioztatzen direnak sartu ditugu: telefonoaren kontsumoa –finkoa, sakela-

koa–, sare eta datuen transmisioa, posta eta NAOaren banaketa.

Gastu horiek beren hornitzaile nagusiekin ia identifikatu ere egiten da, ondoko taulan agertzen den bezala (pezetak, milioitan):

Hornitzaileak	Kopurua	Ehunekoa
Telefónica	750	81
Posta eta Telegrafoak	125	13
Besterik	51	6
Guztira	926	% 100

Ondoko taulan datu horiek gastua bere gain hartzen duen administrazio-departamentuen arabera eman dkitugu (pezetak, milioitan):

Departamentua	Kopurua	Ehunekoa
Lehendakaritza	191	21
Ekonomia	1	–
Hezkuntza	14	2
Osasuna	213	23
Herrilanak	486	52
Industria	2	–
Gizarte Ongizatea	19	2
Guztira	926	% 100

Antzeman daiteke gastua, funtsean, hiru departamentutan biltzen dela –ehuneko 96–:

- Lehendakaritza Departamentua, bereziki postaren eta sareen gastuengatik.

- Herrilan Departamentua, telefono gastu handiena duena.

- Osasun Departamentua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kudeaketarako duen autonomiarengatik.

Aurreko gastuez gainera, Nafarroako Gobernuaren eraikinetako kableatze-sistemen ondoriozkoak ere aztertu ditugu, bai ekitaldian egindako inbertsioari dagokionez –173 milioi pezeta 1999an– eta bai haien mantentzeari dagokionez ere –12,5 milioi pezeta–, beste kontzeptu ekonomiko eta aurrekontukoei egotzitakoak baina lan honen helburuekin lotura zuzena dutenak. Gastu hauek “Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra, S.A.” enpresak kudeatu ditu, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren aginduz.

Horri buruzko araei dagokienez, legedi orokorraz gainera, ondoko berariazko arauak azpimarratu behar ditugu:

a) 307/1998 Foru Dekretua, urriaren 19koa, hornidura eta laguntza kontratuak izenpetzeko eskumenak antolatzen dituena. Ondokoak azpimarratu behar ditugu, gure ondorioetarako:

- Herrilan Departamentuan biltzen dira telekomunikaziorako ekipo eta sistemen horniduraren arloko kontratuak.

- Herrilan Departamentuan biltzen dira telekomunikazioaren arloko laguntza kontratuak.

- Lehendakaritza Departamentuan biltzen dira sistemen aktibo informatikoekin eta informazioaren teknologiarekin loturiko laguntza kontratuak.

b) 1998ko irailean, telefonia zerbitzuak erabiltzeko jarraibide batzuk argitaratu ziren. Hona haien funtsezko alderdi batzuk:

- Helburua: Telefonia zerbitzuen erabilera arazoizkoagoa egitea, aurrezki handiagoa lortzea eta gastu publikoa kontrolatzea.

- Eremua: Foru Komunitatearen Administrazioa eta haren erakunde autonomoak. Ez dira hor sartzen ez sozietate publikoak ez zuzenbide publikoko entitateak ere.

- Eskumena: Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak –Telekomunikazioen Zerbitzua– ditu “telefono eta telefax zerbitzuak instalatu, zerbitzua abian jarri, mantendu, kontratatu, ustiatu, kontrolatu eta inbertariatzeari buruzko ahalmenak”.

- Telefoniako ekipoak: Sakelako telefonoetatik hasi eta telefono mugikor eta faxetara bitarteko ekipo guztiak dira. Trafiko kategoriak ere ezartzen dira: erabateko askatasuna, (funtsean, Lehendakaria, kontseilariak eta zuzendari nagusiak) nazio mailako sare libre, hiriko sare libre eta abar.

- Kontratazioa: Herrilan Departamentuaren eskumena da, zerbitzua eskatzen duenak behar diren fondoak baditu. Horrenbestez, “telefono zerbitzua hornitzen duen konpainiaren fakturazioa aipatu Departamentuan zentralizaturik tramitatuko da”.

- Kontrola: Telekomunikazio Zerbitzuaren erantzukizuna da. Funtsean, ondoko bitartekoak jarriko ditu:

- * Kontsumo-lineei eta fakturazioari begiratzea.

- * Kontsumoko parametroak finkatzea.

- * Departamentuen eta lineen araberako kontsumoa.

Hona gastu hauen kudeaketaz, funtsean, arduratzen diren unitate organiko nagusiak:

Unitateak/Enpresa	Departamentua	Erantzukizuna
Telekomunikazio Zerbitzua	Herrilan, Garraio eta Komunikazioak	Telekomunikazioak
Komunikazio Zerbitzua	Lehendakaritza, Barne eta Justizia	Posta eta telegrafo komunikaz.
Azpiegituren eta Informatika Zentroaren Zerbitzua	Lehendakaritza, Barne eta Justizia	Lineak eta modemak
Plangintza eta Larrialdietarako Atala	Lehendakaritza, Barne eta Justizia	Komunikazioak
Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia	Hezkuntza eta Kultura	Komunikazioak
Barruti eta ospitaletako zuzendaritzak	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Z.	Komunikazioak
Barruti, zerbitzu eta institutueta zuzendaritzak	Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria	Komunikazioak
Obras Públicas y Telecomunicac. de Navarra, S.A.	Herrilan, Garraio eta Komunikazioak	Telekomunikazio enkarguak

II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK**II.1. HELBURUA**

Nafarroako Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2000ko Jarduketa Programan "Nafarroako Gobernuaren komunikazio gastuen" fiskalizazioa sartu dugu.

Lan hau eginez, ondoko helburuak erdietsi nahi ditugu:

1. helburua. Gastuak aplikatzekoak diren aurrekontu printzipio arautzaileen arabera betetzen direla egiaztatzea, haiek finantzen ikuspuntutik arrazoizkoak diren iritzia eman ahal izateko.

2. helburua. Berrikusketaren helburu den jarduerari aplikatzekoa zaion legezkotasun printzipioa betetzen den egiaztatzea.

3. helburua. Gastu ekintzetan erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailen gaineko azterketa egitea, eta kasu bakoitzean egoki irizten diren kudeaketarako gomendioak proposatzea.

II.2. NORAINOKOA.

Aurreko helburuak kontuan hartuta, lana bideratu da, nagusiki, honakoak berrikustera: aurrekontuko 222 kontzeptuari egotzitako gastuaren izaera eta justifikazioa, batetik, eta 1999. urtean horren kudeaketan aplikaturiko administrazio prozedurak, bestetik; horretarako, antolaketa, kontabilitateari eta barne kontrolari dagokienez komenigarri irizitako alderdiak aztertu eta ebaluatu ditugu, eta halaber, betetzean erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailen berri zehatza izaten saiatu gara.

Metodologia gisa, Ganbara honek erabiltzen ohi dituen prozedurez, haren auditoretza gidetan bilduta dauden horietaz, baliatu gara. Prozedura horiek Espainiako Estatuaren Kanpoko Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak Sektore Publikorako onartu zituen Arau eta Oinarrietan daude garaturik.

Gastu hauen gaineko ikuspegia osatzeko, Nafarroako Gobernuako sistema telefonikoaren eta kable sistemen kudeaketak, mantentze lanak –12,5 milioi– nola inbertsioak –173 milioi– sortutakoak ere aztertu dira.

II.3. MUGAK

Gure lanean eragina izan duten mugak hauek dira:

. Fakturen bidez kontsumo telefonikoa modu egokian aztertu eta kontrolatzeko zailtasuna –teknikoa eta bolumenari dagokiona–.

. Nafarroako Gobernuaren unitate arduradunetan garatu ez izana neurtu daitezkeen helburuak eta adierazleak, horiek eman baitezakete bide gastu hauen kudeaketan izandako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila a posteriori ebaluatzeko.

Txostena hiru idatz-zatitan dago egituraturik, eta horietan islatzen dira esparru orokorra eta egindako lanaren bidez lortutako helburuak eta ondorioak. Idatz-zati hauek kantitateen gaineko informazio osagarria ematen duen eranskin batek borobiltzen ditu.

Azterketa-lana 2000ko otsailean eta martxoan egin zuten auditoretzako bi teknikaririk eta auditore batek osatutako taldeak, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Lan honetan parte hartu duten langile guztien laguntza eskertu nahi dugu.

III. ONDORIOAK, IRUZKINAK ETA GOMENDIOAK.

Kontuan harturik egindako lanaren norainokoa eta mugak, ondotik ematen dira ateratako ondorio nagusiak.

III.1. AURREKONTU BETETZEA

1. 222 kontzeptuan komunikazio gastuak erregistratzen dituzten aurrekontu lerroetan, orohar, modu egokian dago islaturik Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek 1999. ekitaldian egin duten mota horretako gastua –926 milioi–.

2. 1995etik 1999ra ⁽¹⁾, gastu horiek ehuneko 47ko gehikuntza izan dute aurrekontuan, baina ehuneko 13ra jaisten da larrialdietako zerbitzueterako talde itxiko irratitelefoniako sare berria jartzeko sortutako gastuak kenduz gero.

(1) Ikusi eranskina, 1. taula.

3. Postako gastuak, 176 milioi 1999. urtean (2), nabarmendu beharra dago:

- Kudeaketaren ehuneko 68 Lehendakaritza Departamentuak egiten du.

- Gastuak, funtsean, frankeo bidezko ordainketari eta Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bidalketari dagozkio.

- Zerbitzuak “Correos y Telégrafos” enpresa entitate publikoaren bidez ematen dira, batez ere, baita posta enpresa batekin izenpeturiko zerbitzuak emateko kontratu baten bidez, laguntza lanetarako.

4. Telefonía eta talde itxiko irratitelefonoia zerbitzuetako gastuak, 764 milioi 1999. urtean (3). Hauxe aipatu nahi dugu:

- Horien kudeaketa, gehien bat, herrilaneke —ehuneko 64— eta erakunde autonomoek —ehuneko 25— egiten dute.

- Gastuak dira telefonía zerbitzukoak —ehuneko 73— eta talde itxiko irratitelefonoia ezarpeneak —ehuneko 27—.

- Telefonía gastuek ehuneko 6ko igoera izan dute 1995etik 1999ra bitarte.

- Herrilan Departamentuak kudeaturiko telefonía gastuetan, 1995etik hona, linea higikorren fakturazioaren ehunekoa, guztizko fakturazioarekiko, aztertu den lehendabiziko urtean ia bat ere ez izatetik ehuneko 14 izatera pasatu da 1999. urtean.

- Telefono finkoen batez besteko kontsumoa 4000 pezeta ingurukoa da hilean eta mugikorrena, berriz, 8.000 pezeta ingurukoa, hilean.

III.2. LEGEZKOTASUNA

5. Oro har, aztertutako gastuen eta inbertsioen kudeaketa legezkotasun oinarriarekin bat egiten da.

Nolanahi ere, alderdi hauek antzeman ditugu:

- Telefonía zerbitzuak erabiltzeko jarraibideak ez dira zorrotz betetzen honako hauei dagokienez: Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen “telefonía eta telefax zerbitzuak ezarri, zerbitzuan jarri, mantendu, kontratatu, ustiatu, kontrolatu eta inbentariatzearen inguruko ahalmenak” eta “zerbitzu telefoníkoa emateagatik konpainia hornitzaileak igortzen duen

fakturazioa” Herrilan eta Komunikazio Departamentuan zentralizatzea.

- “Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra, S.A.” enpresa publikoari inbertsio arloan egindako enkarguetan kontrol eta jarraipenaren akatsak antzeman dira, batez ere emandako zerbitzuen balorazio errealik ezari, lanen garapenaren gaineko egiazko jarraipen gabeziari eta enpresak azpikontrataturiko zerbitzuen gaineko baimen falatari dagokionez.

- 1999. urterako eta 2.000. urtearen zati baterako ez da espreski luzatu talde itxiko irratitelefonoia lehengoko sarearen zerbitzu eman eta mantentzeko kontratua. Kontratuaren kostua 1999an, guztira, 32 milioikoa izan zen. Sare hau 2000. urtean ordezkatzeko dago aurreikusirik.

6. Era berean, ikusi ahal izan dugunez, aztertutako kontratazio prozesuetan ez dago jasota, Foru Administrazioaren Kontuhartzaileak parte hartu izan duenik Kontratazio Mahaian, deituta egonik ere.

Gure gomendioa da:

- *Zerbitzu guztien ahalegina telefonía erabiltzeko jarraibideak bete daitezzen, eta horretarako Telekomunikazio Zerbitzuari behar diren bitartekoak ematea. Testuinguru horretan Kontuhartzaile-tza Delegatuek papera garrantzitsua jokatu behar dute, Zerbitzu horrek egiaztatu gabeko gastu mota hori kontrolatzeko eta behar denean, ez bai-mentzeko.*

- *Enpresa publikoei egindako enkarguek zorrotzagoak izan beharko dute enkargu eta jarraipen prozesuetan, egiaz egindako zerbitzuen gaineko barne kontrola egokia izan dadin bermatzeko.*

- *Kontuhartzaileak kontratazio prozesuetan jokatu beharreko papera egokitzea, horien gaineko kontrola eraginkorra dela ziurtatzeko.*

III.3. ANTOLAKETA ETA BARNE KONTROLA

7. Egindako lanaren arabera, gastu hauek egiaztatzeko ezarri diren antolaketa eta barne kontrola, oro har, egokiak dira, baina sendotu behar dira ondoko gomendioetan adierazten diren alderdietan:

a) Telefonía.

- *Herrilan Departamentuko Telekomunikazio Zerbitzuak eta Herrilan eta Komunikazio enpresak*

(2) Ikusi eranskina, 2. taula.

(3) Ikusi eranskina, 3. taulatik 5. taulara.

bete beharreko eginkizunak zehazki definitzea, eta haien harremanak, lanak, enkarguak, finantza - zioa eta langileak arautzea. Interesagarria izan daiteke, horretarako, kontratu-programa erabiltzea hartu-eman hori gauzatzeko tresna gisa.

- Faktura telefonikoen kontrola osatzea; horre - tarako premiazkoa da edukitzea honako hauei buruzko inbentario osoa: kontratatutako linea eta zerbitzuak, kontratuak, eguneratutako tarifak eta hobariak, altak eta bajak, neurgailuak eta kuoten eta kontsumoen jarraipena. Kontrol hori sendotze - ko zerbitzua hornitzen duen konpainiaren lankide - tza aktiboagoa beharko da, bai eta gastu horien kontrolaz arduratzen diren unitate guztietan admi - nistrazio prozedura homogeneo diseinatu eta apli - katzea ere.

b) Posta

- “Correos y Telégrafos” enteak emandako hobarietan ⁽⁴⁾ sartzea Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen postaturkeko gai guztiak, eta ente horrek egindako likidazioen ego - kitasuna sistematikoki berrikustea.

- Laguntza lanetan aritzen den posta-enpresari dagokionez, berriz, aldiro egiaztatzea bildutako postaturkeko gaiak Postetxean entregatzeko hiru eguneko epe betetzen dela. Halaber, departa - mentuek enpresa horri entregaturiko postaturkeko gaien gaineko kontrola hobetzea.

III.4. ERAGINKORTASUNA, EFIZIENTZIA ETA EKONOMIA

8. Oro har, neurtzeko moduko helburu eta adierazlerik garatu ez izanak, batetik, eta bestetik, zerbitzuen gastuen parametro estandarrik, kostuei buruzko azterlanik eta zerbitzuen urteko txostenik ez izateak galarazten digu iritzi globala ematea komunikazio gastuen kudeaketan erdietsi den eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailen gainean.

Ondorio orokor gisa, halere, ezin da ñabardura bat aipatu gabe utzi, izan ere, zenbait unitatek –adibidez, Nafarroako Ospitalea– lortu du kontrol operatiboa egitea gastu hauen gainean, eskura dituzten giza eta teknika baliabideak kontuan harturik.

Ondotik azaltzen dira unitate arduradunek kudeaketan egin beharreko zenbait hobekuntza, gastu hauetarako guztietarako maila onargarri eta egokia

erdiesteko helburuarekin; kasu batzuetan, arrazionaltasun neurri batzuk, zenbait kasutan dagoeneko erabili direnak aplikatzea dakar hobekuntzak.

- Kontsumoko estandarrak finkatu eta memo - riak prestatzea urteko helburuak noraino bete diren eta estandarizaturiko balioen gainean antze - man diren desbideraketak aztertuta.

- Kontrataturiko linea eta zerbitzuen kontrola eta inbentarioa osatzea.

- Telefoniako zerbitzua egun ematen duen konpainiarekin harremanetan jarraitzea zenbait gaitan akordioak lortzeko, adibidez, fakturak aur - kezteko moduz, aplikatu beharreko tarifak –fin - koetara nola mugikorrerara– zehazteaz, neurgai - luak jartzeaz... fakturaren gaineko kontrolerako gutxieneko tresnak aplikatu ahal izateko. Era berean, telefoniako merkatuaren bilakaeraren gai - neko azteketa iraunkorra egitea operatzaileen proposamenei dagokienez.

- Gastu horiek handitu ez daitezen politika glo - bala aplikatzea – Nafarroako Ospitaleak aplikaturi - koaren ildotik, adibidez, azken urte hauetan gastu hauek ehuneko 39 jaitsi baititu ⁽⁵⁾– zerbitzu guz - tiak barne hartu eta alderdi hauek, besteak beste, aurreikusten dituen:

- * Zerbitzuek trafikoko kategoria desberdinen (barnekoa, metropolitanoa, probintziakoa, nazio - nala eta nazioartekoa) erabilera etengabe aztertu beharko dute, lanpostu bakoitzaren premien ara - bera.

- * Lineako kontsumoaren gaineko informazioa zabaltzea.

- * “moviline” motako telefonoak pixkanaka ordeztzen joan eta mugikorren erabilera orokorra kontrolatzea, bereziki komunikazioa ezartzearen kostua eta ahotsaren buzoien erabilera.

- * Telefono publikoak jartzea lantokietan.

- * Internetera sartzeko egungo sistemaren gai - neko azterketa ⁽⁶⁾.

- * Langile publiko guztiak ardurarazteko kanpai - na, zerbitzu horretan kostuak txikiagotzeko behar den oinarritzko informazioa adieraziz.

- Aipatutako hobekuntzak sartzeko beharrez - koa da aztertzea egungo baliabideak, teknikoak

(4) 1999 ekitaldiko aurrekontuan 11 milioi dira.

(5) Ikusi eranskina, 6 taula.

(6) Erabiltzaileek dituzten informazioa premia teorikoetarako Interneten sartzeko kostua bikoiztu egin da 1999an; gaur egun –Lehendakaritza Departamentuan– 1,3 milioi pezeta ordaintzen da hiler, baina abiada eta saturazio arazoei ez zaie behin betiko konponbiderik eman.

zein langileenak, nahikoak diren edo beharrezkoa izanen den kontrol operatiboaren premia berrieta -ra egokitzea. Hori guztia kostu-etekineko prozesu onargarri baten barrenean.

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna
arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta

eman da txosten hau, indarreko araudiak aurrei-
kusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 10ean


Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

ERANSKINA: TAULAK, INORMAZIO OSAGARRIAREKIN

I. taula

Komunikazio gastuen bilakaera. 222 kontzeptua
(1995etik 1999ra)

Departamentua/urtea	1995	1996	1997	1998	1999
Lehendakaritza eta Barne Dep.	143.692.827	138.136.478	150.759.375	167.072.201	191.029.013
Ekonomia eta Ogasuna	456.933	2.181.429	530.246	1.484.799	1.190.608
Hezkuntza eta Kultura	10.529.972	16.366.153	11.582.480	13.513.470	13.811.078
Osasuna	229.508.110	213.162.237	236.254.256	205.035.160	212.854.889
Herrilan, Garraio eta Komunikazioak	226.677.625	195.021.631	279.373.357	255.610.151	486.252.623
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura	231.343	51.855	662.243	530.570	94.395
Industria, Merkataritza, Turismo eta Lana	1.673.656	1.243.477	1.287.895	1.277.991	1.673.313
Gizarte Ongizatea, Kirola eta Gazteria	19.544.021	12.606.158	21.909.641	21.769.193	19.250.398
Guztira	632.314.487	632.316.482	578.771.414	702.361.490	926.156.317



Iturria: aurrekontu orokorren likidazioa

2. taula

Posta eta telegrafo bidezko komunikazioetako gastuak

a) Gastuak, "Posta bidezko komunikazioetan eta telegrafoetan".

	1999ko zenbatekoa (milioitan)
Posta eta telegrafoak	125
Bildu eta Postara eramateko kontratua	31
Bestelakoak	20
Guztira	176

b) "Posta eta telegrafoak", gastuak departamentuetan (milioitan)

Departamentua	1999ko zenbatekoa	%
Lehendakaritza eta Barne Dep.	85	68
Ekonomia eta Ogasuna	8	6
Hezkuntza eta Kultura	13	11
Osasuna	19	15
Guztira	125	100 %

c) "Posta eta telegrafoak", motaren arabera gastuak (milioitan)

Departamentua	1999, guztira	Frankeatzaila	Frankeo ordaindua	N.A.O.ra bidaltzea	Bestelako bidalketak	Telegrafoak
Lehendakaritza eta Barne Dep.	85	63	4	17	–	1
Ekonomia eta Ogasuna	8	8	8	–	–	–
Hezkuntza eta Kultura	13	12	–	–	1	–
Osasuna	19	17	–	–	2	–
Guztira	125	92	12	17	3	1
%	% 100	% 74	% 10	% 14	% 2	–

3. taula

Taldeko irratitelefonía eta telefoniako zerbitzuak

a) Gastuak, guztira

Gastuak telefonoetan eta bestelakoetan	Zenbatekoa 1999 (milioitan)	%
Telefoniako zerbitzuak	554	73
Taldeko irratitelefonía	210	27
Guztira	764	% 100

b) Departamentu / unitateak

Kudeatzen duen dep./unitatea	1999ko zenbatekoa (milioitan)	%
Herrilan, Garraio eta Komunik.	486	64
Lehendakaritza eta Barne Dep.	73	10
Erakunde autonomoak	195	25
Besterik	10	1
Guztira	764	100

4. taula

c) Telefoniako zerbitzuak: aurrekontuko gastuaren bilakaera 1995-1999. urteetan

Ekitaldia	Zenbatekoa (milioitan)	Indizea (oinarria 100=1995)
1995	523	100
1996	473	90
1997	574	110
1998	514	98
1999	554	106

d) Telefoniako zerbitzuak: gastuak departamentuetan

Kudeatzen duen departamentua/unitatea	1999ko zenbatekoa (milioitan)
Herrilan, Garraio eta Komunikazioak	276
Lehendakaritza eta Barne Dep.	73
Hezkuntza eta Kultura	8
Bestelakoak	2
Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua	160
Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	10
Osasun Publikoaren Institutua	8
Lan Osasunaren Institutua	7
Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua	6
Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua	2
Nafarroako Emakumearen Institutua	2
Guztira	554

5. taula

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua

a) %aren bilakaera telefonia finko eta mugikorraren fakturazioan

Ekitaldia	% finkoena	% mugikorrena
1995	100	–
1996	95	5
1997	94	6
1998	90	10
1999	86	14

b) Linea finkoak: kopurua, gastua eta batez besteko kontsumoa

Lineak	1998ko abendua	1999ko abendua	Igoera (%)
Ibercom	2.250	2.542	13
Erregularrak	332	328	–
RDSI	80	339	324
Guztira	2.662	3.209	% 21
Hilabeteko batez besteko gastua	6.942 pta.	6.285 pta.	(% 9)
Neurtutako batez besteko zerbitzua	3.462 pta.	3.287 pta.	(% 5)

Iturria: Telekomunikazio zerbitzua

c) Mugikorrak: kopurua, gastua guztira eta neurtutako batez besteko kontsumoa, hilean (CMMM)

Mota	Kopurua 1999ko urtarrila	Kopurua 1999ko abendua	Gastua, guztira	CMMM
Moviline	71	73	7.164.763	3.400 pta/tfnoa.
MoviStart	163	300	31.976.230	12.300 pta/tfnoa.
Guztira	234	373	39.140.993	

d) Mugikorrek: batez besteko kontsumoa, departamentuetan

Departamentua	Moviline		MoviStart	
	1999ko urtarrila	1999ko abendua	1999ko urtarrila	1999ko abendua
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura	1.081	–	5.022	3.602
Gizarte Ongizatea, Kirola eta Gazteria	17.851	–	15.196	9.812
Ekonomia eta Ogasuna	3.526	–	8.166	5.679
Hezkuntza eta Kultura	14.188	7.961	8.655	5.919
Industria, Merkataritza, Turismoa eta Lana	5.793	–	11.644	4.665
Ingurugiroa, Garraio eta Komunikazioak	2.848	1.954	6.459	5.271
Herrilan, Garraio eta Komunikazioak	8.950	–	9.461	31.611 ⁽¹⁾
Lehendakaritza, Barne eta Justizia	6.002	1.256	8.316	5.271
Osasuna	5.081	–	14.196	10.341
Toki Administrazioa	–	–	2.705	2.683
Batez besteko kontsumoa, pta/tfnoa	7.130	1.476	8.182	10.094

(1) Korporazioaren saretik mugikorretara egindako barne dei guztiak.

6. taula

Nafarroako Ospitalea. Bilakaera 1995-1999 urteetan

Telefonoaren gastua	Zenbatekoa (milioitan)	Indizea
1995	34	100
1996	28	82
1997	32	94
1998	21	62
1999	20	59

HERRILAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO DEPARTAMENTUAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Nafarroako Gobernuaren 1999ko ekitaldiko "Komunikazioetako gastuak" izeneko aurrekontu programaren gainean Kontuen Ganbarak egindako fiskalizazioaren behin-behineko txostenari dagokionez, ondoko alegazio hauek aurkeztu dira Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren arloetan:

1. Telefoniako zerbitzuak erabiltzeko jarraibideak, eginkizunak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak zentralizatzeari dagokionez, zehatz-mehatz betetzen ez direla-eta esaten denaz, adierazi beharra dago ez dela Departamentu honen erantzukizuna, eta areago, helburu duela, hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuaren gainerako departamentuek erabat betetzea zentralizazio hori.

2. Nafarroako Herrilan eta Telekomunikazio enpresari egindako enkarguen gaineko kontrol eta jarraipenean izandako akatsez den bezainbatean honakoa adierazi behar da:

- Lanak hasi eta amaitzeko datak ez adieraztea ez da, gure ustez, legezkotasun akatsa, arau batek ere ez baitu eskatzen hura adieraztea. Nolanahi ere, enkargu horiei buruzko txostenetan lanen exekuzio epea ageri da eta, beraz, lanen hasiera eguna izanen da enkargurako aginduaren igorpena jasotzen den eguna eta amaierakoa, epea amaitzen dena.

- Emandako zerbitzuen balorazio errealik ez dagoela esatea hipotetikoa da, enkargu guztiak amaieran likidatzen baitira, OPNATELek egindako azken faktura atxikia duen azken likidazioaren bitartez; bi horietan egindako lanen berri biltzen da, hortaz, begi bistan dago bi agiri horiek direla emandako zerbitzuen amaierako balorazio errealak.

- Lanen gaineko egiazko jarraipenik ez dagoela-eta, ez da argudiorik ematen baieztapen hori arrazoitzeko. Edozein kasutan, esan beharra dago jarraipen horren inguruko agiririk ez egoteak ez duela esan nahi jarraipenik izan ez denik; bestalde, inongo arautan ez da eskatzen jarraipenaren frogagiririk.

- Enpresa publikoak azpikontrataturiko zerbitzuen gaineko baimen falta dela-eta, berriz, esan beharra dago baimen hori ez dela legez beharrezkoa, Administrazioaren eta enpresa publikoen

arteko harremanak administrazioako kontratuei buruzko legeen aplikazio esparrutik kanpo daudelako, espreski. Beraz, ez da legezkotasun aldetiko akatsa. Dena dela, esan beharra dago baldintza hori egun sartzen dela enkarguen baldintzen plegetan.

Amaitzeko, bat gatoz enkarguen gaineko kontrola, enkarguak egitea eta jarraipena ahal diren zorrotzenak izan behar direla dioen irizpidearekin, baina ulertuta, dena den, gomendio horiek egokitasunari dagozkiola eta ez legezkotasunari, arlo honetan ez baitugu antzematen legea bete ez dela.

3. Talde itxiko irratitelefoniaren lehengo sarearen zerbitzurako eta mantentze lanetarako kontratua espreski luzatu ez dela dio, eta ez da ahaztu behar kontratu zaharra dela, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kudeatu ez duena, eta, egun, zerbitzu horretarako kontratazio berriaren lizitazioa tramitatzen ari dela.

4. Kontratazio Mahaietan Kontuhartzailletza ez agertzeari dagokionez, inguruabar hori ez dago zuzenean loturik Departamentuarekin, honek espreski eta banaka luzatzen baitio Kontuhartzailletzari mahai guztietara joateko deia, baina ez da errekerimenduaren erantzunaz arduratzen, eta hala agertarazi du Departamentuak behin baino gehiagotan.

Iruñean, 2000ko uztailaren 31n.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBARAK EMANIKO ERANTZUNA

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren alegazioak jasorik, Kontuen Ganbarak "Nafarroako Gobernuaren komunikazio gastuak (1999)" gaiari buruzko behin-behineko txostena behin-betikotzat jotzen du.

Halere, Ganbarak zehaztu nahi du, 2. alegazioaren inguruan, OPNATEL enpresa publikoari adjudikaturiko enkarguen gaineko jarraipenean eta kontrolean atzeman diren gorabehera guztiak agindu teknikoen pleguak ez betetzetik heldu direla. Plegu horiek alderdien arteko harremana erregulatzen duten arauen multzoaren zati funtsezkoa dira.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 10ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

San Adrián Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1998 ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak San Adrián Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1998 ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

San Adrián Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1998 ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (15. or.)
- II. Helburua (15. or.)
- III. Norainokoa (16. or.)
- IV. Iritzia (16. or.)
 - IV.1. San Adrián Udalak (16. or.)
 - IV.2. Erakunde autonomoak (17. or.)
- V. Finantzen egoera-orriak (17. or.)
- VI. San Adrián Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta gomendioak (20. or.)
 - VI.1. 1998ko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (20. or.)
 - VI.2. Aurrekontu-betetzea (20. or.)
 - VI.3. Egoera-balantzea (24. or.)
 - VI.4. Udalaren finantza-egoera 1998ko abenduaren 31n (26. or.)
 - VI.5. Hirigintza (28. or.)
 - VI.6. Erakunde autonomoak (28. or.)
- Eranskina.** Erabilitako adierazleen definizioa (30. or.)
- Txostenari aurkezturiko alegazioei Nafarroako Kontuen Ganbarak emandako **erantzuna** (31. or.).

I. SARRERA

San Adrián udalerria Ebro ibaiaren ertzean kokatua dago, Lizarrako merindadean. 5.340 biztanle dauzka –1999ko urtarilaren 1eko erroldaren arabera–, eta 21,5 kilometro koadroko hedadura.

Bere jarduera burutzeko, honako erakunde autonomo hauek sortu ditu: Radio San Adrián eta Musika Eskola.

Bestalde, Nafarroako Goi Erriberako hiri hondakin solidoen Mankomunitatean sartuta dago.

Gainera, Cárcar, Andosilla eta Azagrarrekin batera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean parte hartzen du.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, San Adrián Udalak eta bere erakunde autonomoek 1998ko ekitaldian zehar eginiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta Gastu- eta Dirusarrera-aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa honako hauek osatzen dute, funtsean: lehen aipaturiko lege horiek eta horiek garatzeko araudiak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioa nahiz hirigintza-kudeaketa eraentzen dituzten arauak eta Nafarroako toki-enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak.

Txostenaren helburua honako hauei buruz daukagun iritzia adieraztea da:

a) San Adrián Udalaren eta bere erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1998ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun printzipioari egokitzen ote zaion.

d) Udalaren finantza-egoera 1998ko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, San Adriángo Udalaren (aurrerantzean, Udal) eta bere erakunde autonomoen fiskalizazioa burutu du, 1998ko ekitaldiari dagokiona, hori baita itxitako azken ekitaldia.

Ganbara honek egin dauka jadanik Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1986ko ekitaldiari buruz diharduena (1988ko maiatzean Nafarroako Parlamentuko 24. Aldizkari Ofizialean argitaratua), baina igarotako denbora ikusirik, ez dugu kontuan hartu 1998ko ekitaldiari buruzko azterketa egitean.

Udalak kontabilitate publikoko sistema dauka ezarrita, Toki Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorrari jarraituz (Plan hori Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontu-egituraren arloan garatzen duen irailaren 21eko 271/1998 Foru Dekretuari egokitua dago).

Eginiko lana, beraz, dirusarrerei eta gastuei dagozkien atal ekonomikoen eta ondare-masen ikuskarpean gauzatu da, eta antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu da lana.

Txostenean biltzen dira Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen antolaketa, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezko jotzen ditugun iruzkinak eta gomendioak.

Azterketa-lana 2000ko martxoan eta apirilean egin da.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei.

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, San Adriángo Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 1998ko ekitaldiko finantza-egoerako orriak aztertu ditugu; Udalaren ardurapean egin eta, laburbilduta, txosten honetako V. atalean biltzen dira.

Gure azterketan, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoko auditoretzarako onetsitako arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

IV.1. SAN ADRIANGO UDALA

IV.1.1. 1998ko aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doan 1998ko aurrekontuaren likidazioak behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egin dituen eragiketak. Dena den, badaude zenbait aurrekontu-egozketa oker, nahiz eta buruturiko udal-jardueraren agerpen orokorrean eraginik ez duten.

IV.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Egoera-balantzeak nahiko ongi agertzen du Udalak 1998ko abenduaren 31n daukan ondare-egoera, honako salbuespen hauekin:

- 13,4 milioi pezetako saldo hartzekoduna banku-kontuetan. Zuzendu beharko litzateke hori, ez baitu Udalaren benetako zor bat agertzen.
- Honako kopuruok erregistratu gabe daude: 8,5 milioi pezeta hartzekodun gisa; ikastetxerako lurak erosteagatik beste 18, eta, kirol-instalazioetarako lursailak erosteagatik, 40.
- Hartzekodunen artean erregistraturiko 88 milioiko saldoa: birsailkatu egin beharko litzateke, mailegu gisa.

IV.1.3. Legezketasuna

Aurrekontu, kontabilitate, langileria eta administrazio-kontratazioko arloetako araudiaren urraketak antzeman dira Udalaren jardueraren ekonomiko eta finantzarioan, eta horiei buruzko iruzkinak egin dira txostenean zehar.

IV.1.4. 1998ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa

San Adriángo Udalak 1998ko abenduaren 31n duen finantza-egoerak maileguen zenbateko nabarmena –747 milioi pezeta– du aipagarri; mailegu horiek finantza-zama handia ezartzen dute. Aurrezpen garbia negatiboa da, baita diruzaintza-ko gerakina –130 milioi pezeta– ere, inbertsioen finantzaketaren defizit baten eta kobrantza-kudeaketa okerraren ondorioz.

Zorpetze-gaitasuna deuseza da une honetan, horren mailak muga gainditzen baitu. Egoera kritiko hori xamurtu egingen da etorkizunean, industrialdeko lursailak saltzen direnean; horri esker, zorraren zati bat kitatu eta finantza-zama murriztu ahalko da.

IV.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

IV.2.1. Radio San Adrián

Fiskalizaturiko ekitaldian ez du jarduerarik izan.

IV.2.1. Musika Eskola

Ekitaldi honetan eratua da, eta azken hilabete-etako jarduera 10,5 milioiko zenbatekoarekin dauka erregistratuta. Ekitaldiaren gainerakoari dagozkion gastuak Udalaren kontuetan daude jasota.

Udalak egokiak diren prozedura eta kontrolak ezarri behar ditu, eta, bere egitura eta jarduna kontuan izanik, erakunde autonomo hau mantentzearen egokitasunaz gogoeta egin beharko luke.

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa:**

Udaleko, Idazkaritzako, Kontu hartzaitzako eta Kontabilitateko atalen arteko lankidetzak eta koordinazio-ekak disfuntzio larriak, lanak bikoiztea eta kudeaketa akastuna erakartzen ditu hainbat ataletan, eta hori agerian uzten da txostenaren gorputzean. Aipaturikoak honako hauetan gauzatzen dira nagusiki:

- Aurrekontuak berandu onestea eta aurrekontua a posteriori kontabilizatu eta likidatzea.

- Erosketen eta kontratazioen atalaren kudeaketa okerra.

Bestalde, Udalak bere alde dituen eskubideen kobrantza oker kudeatzeak larriago egiten du 1998ko ekitaldiaren amaieran Udalak pairatzen duen finantza-egoera kritikoa, zeina inbertsio-finantzaketaren defizitak eragina baita; izan ere, Udalak biztanle bakoitzeko dituen dirusarrerak Nafarroan biztanleria-tarte berekoak diren udalek dituztenen batez bestekoa baino nabarmenki baxuagoak dira. Dena den, finantza-egoera hori aldatu egingen da aurki, industrialdeko lursailak saltzen direnean.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Jarraian aipatzen diren finantzen egoera-orrien berri txosten honen hurrengo orrialdeetan ematen da:

- Udalaren gastu eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoka.

- Udalaren egoera balantzea, 1998ko abenduaren 31koa.

- Diruzaintzako gerakina

San Adriánko Udaleko aurrekontu-betetzea, 98/12/31n

Gastu-aurrekontuaren betetzea (pezetatan)

	Hasierakoak	Aldaketak	Behin betikoa	Onetsitako obligazioak	Ordainketak	Ordaintzeke	Oblig./guztiz-koa, %	Ordainketak/oblig., %
Langileria gastuak	194.632.919	6.107.074	200.739.993	197.900.152	193.390.154	4.509.998	26	98
Ohiko ond. eta zerb. erostea	155.260.720	29.707.241	184.967.961	182.070.829	130.313.203	51.757.626	24	72
Interesak	34.163.126	0	34.163.126	24.204.921	24.184.734	20.187	3	100
Transferentzia arruntak	13.441.783	7.020	13.448.803	10.419.244	8.499.467	1.919.777	1	82
Inbertsioak	443.047.464	95.655.135	538.702.599	324.061.676	261.971.015	62.090.661	42	81
Finantza-pasiboan aldaketa	29.161.939	0	29.161.939	29.137.109	29.137.109	0	4	100
Gastu-aurrekontua, guztira	869.707.951	131.476.470	1.001.184.421	767.793.931	647.495.682	120.298.249	100	84

Dirusarrera-aurrekontuaren betetzea (pezetatan)

	Aurrekontua	Behin betikoa	Onartua	Kobratua	Kobratzeke	Onartua/ guztizkoa, %	Kobrantzak/ aitortua, %
Zuzeneko zergak	100.422.680	100.422.680	102.779.552	100.207.978	2.571.574	12	97
Zeharkako zergak	71.895.870	71.895.870	42.708.837	34.117.947	8.590.890	5	80
Tasak, prezio publikoak eta beste	64.704.366	64.704.366	60.918.912	56.996.964	3.921.948	7	94
Transferentzia arruntak	209.064.910	209.064.910	227.756.432	205.826.058	21.930.374	26	90
Ondare dirusarrerak	8.157.007	8.157.007	7.270.510	5.844.087	1.426.423	1	80
Inbertsioak besterentzea	1	1	1.913.790	1.913.790	0	0	100
Kapital transferentziak	45.463.117	45.463.117	49.481.734	43.768.500	5.713.234	6	88
Aktiboen aldaketa	0	0	0	0	0	0	
Pasiboen aldaketa	370.000.000	370.000.000	370.000.000	370.000.000	0	43	100
Dirusarrera-aurrekontua, guztira	869.707.951	869.707.951	862.829.767	818.675.324	44.154.443	100	95

1998ko egoera-balantzea (pezetatan)

AKTIBOA

Izena	Zenbatekoak
Ibilgetu materiala	1.108.676.547
Lurrak eta ondasun naturalak	200.742.094
Eraikuntzak	673.582.200
Makineria, instalazioak eta tresneria	51.163.518
Garraio-elementuak	2.634.641
Altzariak	23.841.625
Informazio-prozesutarako ekipamendua	8.746.976
Espezializaturiko instalazio konplexuak	147.965.493
Ibilgetu inmateriala	1.617.615
Bestelako ibilgetu inmateriala	1.617.615
Azpiegituretako eta erabilera orokorrerako ondasunetako inberts.	345.948.835
Erabilera orokorreko lurrak	211.299.154
Azpiegiturek eta erabilera orokorrerako ondasunak	33.019.813
Herri-lurrak	101.629.868
IBILGETUA, GUZTIRA	1.456.242.997
Zordunak	180.522.217
Aitorturiko eskubideengatik zordunak	111.317.370
Beste ente erre. zordunak	10.566.440
Entitate publikoak	34.227.001
Aurrekontukoak ez diren beste zordunak	24.411.406
Kontu finantzarioak	215.137.967
Kutxa	228.692
Bankua eta kreditu-erakundeak	214.909.275
AKTIBOA GUZTIRA	1.851.903.181
Aktiboko ordena-kontuak	32.966.902
Gordailuko baloreak	32.966.902

PASIBOA

Izena	Zenbatekoak
Ondarea eta erreserbak	440.279.331
Ondarea	674.119.670
Lagaturiko ondarea	(27.772.285)
Erabilera orokorrerako ondarea	(206.068.054)
Kapitaleko dirulaguntzak	401.971.328
Kapitaleko dirulaguntzak	401.971.328
Epe luzeko zorrak	659.605.657
Jasotako maileguak	659.605.657
Epe laburreko zorrak	321.351.143
Aitorturiko obligazioengatiko hartzekodunak	3.969.191
Agindutako ordainketengatiko hartzekodunak	160.385.232
Dirusarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak	46.313
Ente publikoak, kobratzeko eskubideengatik	10.566.441
Ente publikoak, zintzilik dauden eskubideengatik	36.565.826
Entitate publikoak	12.718.515
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	97.099.625
Aplikatzeko dauden kontusailak	134.449
Aplikatzeko dauden dirusarrerak	134.449
Ekitaldiko emaitza	28.561.272
Ekitaldiko emaitza	28.561.272
Pasiboa, guztira	1.851.903.180
Gordailuko baloreak	32.966.902
Pasiboko ordena-kontuak, guztira	32.966.902

Diruzaintzako gerakina (doitua)

Diruzaintzako gerakinaren egoera	Zenbatekoak (pezetak, milakoetan)
(+) Ekitaldiaren bukaeran kobratzeke dauden zordunak	135.891.774
Dirusarrera-aurrekontukoak. Aurrekontu arrunta	44.154.443
Dirusarrera-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	67.103.822
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	58.638.407
Ken kobratzeko zalantza dauden saldoak	(33.870.458)
Ken aplikatzeko dauden dirusarrera burutuak	(134.449)
(-) Ekitaldiaren bukaeran ordaintzeke dauden hartzekod.	289.284.702
Gastu-aurrekontukoak. Aurrekontu arrunta	120.298.249
Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	44.056.174
Aurrek. dirusarrerak itzultzeko eragiketetakoak	46.313
Aurrekontuz kanpoko eragiketetakoak	146.383.966
Auditoretzako doikuntzak:	
Gastu-aurrekontukoak. Aurrekontu arrunta	66.500.000
Aurrekontuz kanpoko eragiketetakoak	(88.000.000)
(+) Diruzaintzako funts likidoak	215.137.967
Auditoretzako doikuntza. Funts likidoak	13.400.000
Atxikitako finantzaketa daukaten gastuei atxikitako diruzaintza-gerakina	205.847.920
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	(130.702.881)
Diruzaintza-gerakina, guztira	75.145.039

VI. SAN ADRIANGO UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIOAK

VI.1. 1998KO AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

Gastu-aurrekontuaren betetzea 768,5 milioi pezetakoa da, eta dirusarrerak 862,8 milioioak dira (azken horietatik, 370 milioi hitzarturiko kreditu berri batekoak dira, industrialdearen eraikuntza finantzatzeko).

Gastu-aurrekontuaren betetzea ehuneko 77koa da. Inbertsioei dagokien atala da betetzerik baxuena erakusten duena (ehuneko 60koa).

Dirusarrerei dagokienez, betetzea ehuneko 95ekoa da, eta zeharkako zergen epigrafeak da ehunekorik baxuena duena (ehuneko 80).

Urteko aurrekontuak onesteko atzerapen nabarmena antzeman da; aurrekontu horiek a posteriori kontabilizatu eta ixten dira.

Gastuak aurretiazko baimenik gabe egiten dira. Ez da gastuaren kontu-hartzerik egiten ez eta ordaintzeko agindurik ematen ere.

Gainera, logikoa denez, kontzeptu bakoitzean erabiltzeko moduan dagoen kredituaz eginiko jarraipenik ere ez dago, eta a posteriori kontabilizatzean agerian geratzen da zenbait kontusailetan aurrekontu-kontsignazioa baino handiagoa izan dela gastua.

1998ko aurrekontua 1998ko uztailean onetsi zen, eta 1999ko abenduan itxi zen. Honako lan hau bukatu zen egunean, Udaletxeak ez zeuzkan onetsita ez 1999ko aurrekontua ez eta 2000koa ere.

Bestalde, Idazkaritza, Kontu hartzailletza eta Kontabilitateko arduradunen artean lankidetzak eta koordinazioa eza dago, eta horren ondorioz lanak eta erregistroak bikoiztu egiten dira, egunero kudeaketan huts egiteak eta bestelako disfuntzioak sortzen dira eta, gainera, ordainketak atzerapen nabarmenaz egiten dira.

VI.2. AURREKONTU-BETETZEA

VI.2.1. Langileria-gastuak

Arlo horretako gastuak 199,7 milioioak dira, eta 1998ko ekitaldian bere langileei eginiko ordainketei dagozkie. Gastu-aurrekontuaren ehuneko 26 osatzen dute.

Udaletxean 34 pertsonak egiten dute lan; horietatik 10 funtzionarioak dira, eta beste 24ak lan-kontratadunak.

Horretaz gain, 1998ko ekitaldian zehar behin-behineko 54 kontratu egin ditu Udalak, INEMeko obrak egiteko, nagusiki.

Prozedurak eta nomina-kudeaketa aztertu ondoren, horiek behar bezalakoak direla deritzogu, eta epigrafe horretan erregistraturiko gastuak arrazoizkoak dira. Dena den, gure berrikuspenean oinarrituz, honako zehaztapen hauek egin beharrean gaude:

- Korporazioko kideen ordainsari finko eta aldakorak ezartzen dituen erabakirik ez dago. Erabakirik egonez gero, ordainsari horiek aspaldiko erabaki baten bidez onetsiak dira, eta ez da horien gain atxikipenik egiten.

- Aparejadoreari eta hilerriko arduradunari ordaindutako kopuruak gastu-aurrekontuko 2. epigrafean kontabilizatu beharko lirarteke.

- Udal-lantaldeko langileen aparteko orduak ez dira nominan sartzen, eta horien gain ez da atxikipenik egiten.

Langileria-arloari buruz azalduko ondorioak gogoan izanik, honako hau gomendatzen dugu:

- *Osoko Bilkurak hartutako erabakiz ezar daite zela Korporazioko kideen ordainsariak, eta behar diren atxikipenak egin daitezela.*

- *Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketen epigrafean kontabilizatzea aparejadoreari eta hilerriko arduradunari ordaindutako kopuruak.*

- *Nominan sar daitezela udal-lantaldeko langile guztiei ordaindutako kopuruak eta behar diren atxikipenak egin daitezela.*

VI.2.2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak

Gastuen atal honen betetzea 182 milioioak da; hau da, gastu-aurrekontu osoaren ehuneko 24.

Kontzeptu ekonomikoen arabera sailkatuta, honako kontusail hauek nabarmentzen dira epigrafe honetan:

Kontzeptua	Zenbatekoa (pezetatan, milioitan)
Herriko festak	26,8
Makineria eta instalazioak mantentzea	19,9
Askotariko gastuak	19,8
ANSA, kontratua	14,1
Eraikinak mantentzeko kontratua	11,8
Ura	11,8
Argi-hornidura	10,8
Guztira	115

Arlo honetan eginiko azterketan oinarrituz, honako **ondorio** honetara iritsi gara:

- Ez dago behar bezalako kontrolik ez Udalak sinaturiko kontratu nagusien gain ez eta kapitulu horretako gastu-kontzeptu nagusien gain ere:

a) Udal-eraikinak garbitzeko kontratua. Zenbatekoa: 11,2 milioi pezeta.

Kontratuak ez du zehazten nola eguneratuko den prezio hori kontratuaren luzapena eginez gero. Kontratuaren mugaeguna 1998ko abuztuaren 31 izan zen, eta tarifa ehuneko 8,3an eguneratu zen. Gehikuntza horren onespina ez da agertzen ez Osoko Bilkurako aktetan ez eta Gobernu Batzordekoetan ere.

Hala hilabetero garbiketa-enpresak aurkezturiko faktura guztiak nola kontabilitate-dokumentuak sinatu gabe daude.

b) Ura edangarri bihurtzeko plantaren mantentzerako kontratua

1998an gastu hori, zeina aurrekontuetan 7 milioikoa izanen zela aurreikusten baitzen, 16,3 milioikoa izan da.

Udaletxean ez da agertzen enpresarekin sinaturiko kontratua. Hileroko fakturetatik bakarra ere ez dago sinatuta, ezta kontabilitate-dokumentuak ere.

c) Ura edangarri bihurtzeko plantak izandako argi-gastua.

Azagrarekin elkarbanatua dago, eta San Adriángo Udalak kontabilitatearen bitartez ezarria du gastuaren ehuneko 58ko ekarpena eginen duela; dena den, ez dago idatzizko ezein akordio-
ren konstantziarik, eta, dirudenez, desadostasunak daude aplikatu beharreko ehunekoari buruz.

d) Herriko festak eta pop rock lehiaketa

Horiek erakarri duten gastua 26 eta 5,5 milioi pezetakoa da, hurrenez hurren.

Oro har, gastu-mota honen kontrola ez da behar bezalakoa, fakturen berrikuspenari, aparte-
ko orduen kontrolari eta atxikipenei dagokienez.

e) Zenbait ikastaro. Kontzeptu horrek 2,6 milioiko gastua dauka.

Ikastaroak irakasten dituzten monitoreei ez zaie PFEZeko atxikipenik egiten. Udalak antolatutako ikastaroak parte-hartzaileek ordainduriko kutoekin finantzatzea aurreikusten zen; kontabilitatekoek, ordea, ez daukate parte-hartzaileei buruzko informaziorik; hori dela-eta, ezin dute behar bezala egin kuota horien likidazioa.

f) Ur edangarria kudeatu eta hornitzeko kontratua.

1998an 14,1 milioi pezetako gastua ekarri du.

Kontratu ezberdinen gain dagoen kontrol-gabezia orokorra hemen ere aipatzekoa izateaz gain, kasu honetan argitu behar da zer gastu diren enpresak fakturatu behar dituenak eta zein den Udalak zuzenean eginiko konponketen ondoriozko ordaina lortzeko modua, bai eta kontratatutako prestazioak guztiz bete daitezela eskatzeko modua.

Gure gomendioa da gastu-arlo hau berregituratzea, kontrola areagotuz: gastuaren aurretiazko baimenaren bitartez, fakturak ikus-onetsiz, gastuaren agintze eta kontu-hartzearen bitartez eta Udalak sinaturiko kontratu guztiak hertsikiago kontrolatuz.

V.2.3. Gastu finantzarioak

Epigrafe honek 24,2 milioi pezetako gastuak biltzen ditu; alegia, ekitaldiko gastu guztien ehuneko 3.

Guk eginiko azterketan oinarrituz, interesen egozketa egokia dela deritzogu, Balantzean erregistraturiko maileguen arabera; Udalak 1998ko abenduaren 31n daukan kanpo finantzaketa jasozten dute horiek.

V.2.4. Transferentzia arruntak

10,4 milioi pezetako errealizazioa dauka; alegia, ekitaldiko gastu guztien ehuneko 1.

Kontusailik garrantzitsuenak Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eragindako gastuei (5,2 milioi) eta familientzako eta irabazi asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzei (3,2 milioi) dagozkie.

Guk eginiko azterketan oinarrituz, epigrafe honetan erregistraturiko gastuak egokiak dira eta behar bezala kontabilizatuta daude, nahiz eta arlo honetako administrazio-prozedurek Idazkaritza eta Kontu-hartzailetzaren arteko koordinazioa falta duten.

V.2.5. Inbertsioak

Atal honetan agerturiko zenbatekoa 324 milioi pezetakoa da; alegia, Udalaren gastu guztien ehuneko 54.

Betetze apala du, ehuneko 60koa, lerro horren behin betiko aurrekontua 538 milioikoa zelako. Betetze-maila apal horretan bi kontusailek eragiten dute nagusiki:

- Lurretan eginiko inbertsioak, 53,4 milioiko aurrekontua duena. Ekitaldian ez da ezer bete;

hala ere, erregistratzeke dago 40 milioi inguruko zor bat, kirol-instalazio batzuk eraikitzeke lur-erosketa baten ondoriozkoa.

- Industrialdea handitzeko proiektua, 226,8 milioiko aurrekontua duena. Horietatik, 12,7 baka-rik bete dira.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, 1998an eginiko inbertsioek ehuneko 62ko gorakada izan dute.

Azterketa orokor hori egin ondoren, honako kontusail hauek hautatu ditugu gure analisisa egiteko:

Zenbatekoa (pezetatan, milioitan)	
Ikastetxerako lurak erostea	18,5
Urbanizatzea. "Proyecto de la Villa" delakoa. 1. fasea.	31,2
Industrialdea urbanizatzea.	130,7
Frontoi estalia.	48,3
Guztira	228,7

a) Derrigorrezko Bigarren Irakaskuntzako Ikastetxerako lurak erostea.

Errealizaturiko kopurua, 18,5 milioi pezeta, Udalak erositako lur batzuen jabeari eginiko ordainketa partzialari dagokio. Ez da inolako kontraturik egin lurraren jabearekin: antza denez, berarekin ahozko akordio bat erdietsi zen.

Udalan ez da erosketa horri buruzko espedienterik ireki, baina, adierazi digutenez, oraindik beste 18 milioiko kopurua –zeina oraindik kontabilizatu gabe baitago– ordaindu beharra dago.

b) Urbanizatzea. "Proyecto de la Villa" delakoa. 1. fasea.

31,2 milioiko errealizazioa dauka; horren kreditua, ordea, 2,3 milioikoa zen.

Kontratazio-espedientea osatu gabe dago, eta ez dago aurkezturiko eskaintzen konstantziarik. Udalaren sarrera-erregistroak ez ditu azaltzen espedientean agertzen direnak.

Obrak sei hilabeteko atzerapenarekin amaitu ziren, baina ez dago ezein luzapenen izapidatzearen konstantziarik, ez eta berandutzaren ondoriozko ezein zehapen-eskaeraren konstantziarik ere.

c) Industrialdea urbanizatzea.

Aitorturiko betebeharrak 130,7 milioi pezetakoak dira, eta industrialdea eraikiko deneko lursailen jabeek desjabetzeetako batzuegatik ordaindutako kopurua jasotzen da.

Behin-behineko kontabilizaturiko kopuruen eta kontratuak egitean finkaturiko behin betikoen artean aldaketa ugari izan da, eta horiek kontabilitate-akatsak erakarri dituzte, zeinen ondorioz Balantzeak ez baititu jasotzen hartzekodunei dagozkien 8,5 milioi.

d) Frontoi estalia.

Aitorturiko obligazioak 48,3 milioi pezetakoak dira; horrela, ba, lerro horretarako baimendutako kredituak gaindituta daude, eta aurrekontu-betetzeko oinarriak urratu egin dira.

20 hilabeteko atzerapenez bukatu da obra; alta, berandutzaren ondoriozko inolako zehapenik eskatu izanaren konstantziarik ez dago.

Era berean, udalak ziurtapenak ordaintzeari dagokionez atzerapen nabarmena dagoela ikus daiteke.

Inbertsioen arlo honetan eginiko azterketan oinarrituz, honakoa gomendatzen dugu:

Aurrekontu-betetzearen oinarriak betez, aurre -kontuan kontsignaturiko kopuruak errespetatzea; obra bakoitzerako espediente oso bana eduki -tzea, Kontratuei buruzko Foru Legea errespetatu -tuz; eta beharrezkoak diren obra-atzerapenak iza -pidatzea edo, bestela, legeak ezarritako erantzukizuna galdatzea, atzerapena kontratistari egoztekoa denean.

VI.2.6. Finantza-pasiboen aldaketa

Epigrafe honek 29,1 milioi pezetako errealizazioa dauka; alegia, gastuen ehuneko 4koa.

Guk aztertu dugunez, kapitulu horrek modu egokian jasotzen ditu ekitaldian zehar errealizaturiko mailegu-amortizazioak.

VI.2.7. Zuzeneko eta zeharkako zergen ondoriozko dirusarrerak

Zuzeneko zergei dagokienez, aitorturiko esku-bideak 102,7 milioi pezetakoak dira, honela xehekatuak:

Zuzeneko zerga	Onartua	Sartua	Sartzeke
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	2.895.382	2.870.876	24.506
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	71.937.202	70.263.752	1.673.450
Lizentzia fiskala	28.012.002	27.138.384	873.618
Kontribuzioaren sorta, laburpena	(46.084)	(46.084)	0
Tasen sorta, laburpena	(17.734)	(17.734)	0
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren sorta, laburpena	(1.216)	(1.216)	0
Guztira	102.779.552	100.207.978	2.571.574

Zeharkako zergen arloko eskubide aitortuak
42,7 milioioak dira, honela xehekatuta:

Zeharkako zerga	Onartua	Sartua	Sartzeke
Ehiza eta arrantza esparruak	0	0	0
EIOZ	14.515.433	7.133.897	7.381.536
Zirkulazioa	24.577.623	23.378.689	1.198.934
Ziklomotorrak	244.349	233.929	10.420
Telefónica-ren kanona	3.371.432	3.371.432	0
Guztira	42.708.837	34.117.947	8.590.890

Zuzeneko eta zeharkako zergen epigrafea aztertu ondoren, kontzeptu bakoitzean erregistraturiko kopuruak egokiak direla deritzogu. Dena den, hobetu daitezkeen hainbat puntu aurkitzea ahalbidetu du gure azterketak. Hona hemen:

- Aurreko ekitaldia amaitu baino lehen onestea zerga-tasak. Kasu honetan, 1998ko tasak ekitaldi bereko urtarrilean onetsi ziren.

- Zergadun berankorrei jakinarazpen bat bidaltzen zaie ekitaldiaren bukaeran, eta bertan zehaz-

ten zaizkie kobratzeke dauden zergak eta epeak. Azken jakinarazpenak 1998an bidali ziren; hala ere, ez da kobrantza-ekintza gehiagorik burutu. Kobrantza ez da premiamendu-bidez kudeatzen, eginkizun hori duen exekuzio-agente bat badagoen arren. Atzerapena onartzen den kasuetan, ez da berandutza-interesik kobratzen.

Ondoko koadroan, nahitaezko zergen zama-tasak Toki Ogasunei buruzko Legean (TOL) ezarritako tasarekin alderatzen dira:

Zerga	Udaleko tasa	TOLeko tasa
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,37	0,1 – 0,5
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0,8	0,1 – 0,8
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	1,04	1 – 1,4
EIOZ	3,5	2 - 5
Lurren balioaren gehikuntza	8	8 - 20

Lurren balioaren gaineko %		
Urtebete eta 5 urte arteko epea	2,4	2,4 – 3,4
10 urte bitarteko epea	2,1	2,1 – 3,3
15 urte bitarteko epea	2	2 – 3,3
20 urte bitarteko epea	2	2 – 3,2

Zuzeneko eta zeharkako zergei buruzko epigrafe honetan eginiko iruzkinen ildotik, hauxe gomendatzen dugu:

- *Aurreko ekitaldia amaitu baino lehen onestea zerga-tasak.*
- *Berankorrei kobratzeko ekintzak ugaritzea, premiamendu-bidezko dirubilketa eta kontratatari -*

ko exekuzio-agente zerbitzuak erabiliz; berandu -tza-interesak kobratzea.

VI.2.8 Tasak eta bestelako dirusarrerak

Dirusarrerei buruzko atal honek aitortutakotik 60,9 milioitako zatia hartzen du.

Horretatik, honako kontzeptu hauek aztertu ditugu:

Kontzeptua	Onartutako eskubideak (pta.tan, milioitan)	Ataleko guztizkoaren gaineko %
Ur-hornidura	17,6	28,9
Estolderia	6,8	11,2
Hartuneak eta kontagailuak kontserbatzea	2,7	4,4
Lursailen balioaren gehikuntza	1,4	2,3
Guztira	28,5	46,8

Dirusarreren epigrafe honetako eskubide aitortuak egokiak dira. Hala ere, gure azterketan oinarrituz, honako iruzkin hauek egin behar ditugu:

Hiri lurren balioaren gaineko zerga zuzeneko tributu bat da, eta halakotzat erregistratu beharko litzateke zuzeneko zergen atalean.

Kontagailuen kontserbazioaren atalean (2,6 milioi pezetako aitortua), ehuneko 16ko BEZarekin erasan beharko litzateke, eta ez Udalak aplikatzen duen ehuneko 7ko tasa murriztuarekin.

Aurreko lerroakaden ildotik, hauxe gomendatzen dugu:

Lurren balioaren gehikuntzaren kontzeptua zuzeneko zerga gisa erregistratzea eta kontagai -luen kontserbazioaren kontzeptuan BEZ orokorra -ren tasak erasatea.

VI.2.9. Transferentzia arrunten ondoriozko dirusarrerak

Dirusarrera-epigrafe honek 227,7 milioi pezetako aitortua dauka.

Zenbatekotik, honako kontusail hauek dira azpimarratzekoak –atal horretako ehuneko 87 biltzen dute–: Toki Ogasunen Funtsa, 147,3 milioi; Montepiorako dirulaguntza, 13,7, eta haurtzaindegiko langileriarako dirulaguntza, 36 milioi pezeta.

Atal honetako dirusarrera guztien ehuneko 93 inguru Nafarroako Gobernutik dator.

Gure azterketan oinarrituz, epigrafe honetan erregistraturiko kopuruak egokiak direla ondorioztatu dugu.

VI.2.10. Kapital transferentzietatik datozen dirusarrerak

Epigrafe honetako dirusarrera aitortuak 49,5 milioioak dira, eta Nafarroako Gobernutik datoz.

Duten zenbatekoa dela-eta, honako kontusail hauek azpimarratzen ditugu –ataleko ehuneko 88 biltzen dute–:

Kontzeptua	Pezetak, milioietan
Ezpondak egonkortzeko dirulaguntza	26,5
Gordailuak iragazkaitz egiteko dirulaguntzak	5,5
Roncaleses kaleko obretarako dirulaguntzak	4,5
“Obras de la villa”, II. fasea	6,9

Guk eginiko azterketan oinarrituz, atal honetan erregistraturiko kopuruak egokiak direla deritzogu.

VI.2.11. Finantza-pasiboen aldaketa

Zatika erabili ahal izateko 370 milioiko mailegu bat jasotzen du. Mailegu hori industrialdea finantzatzeko da. Egokiro erregistratua dago, erabilgarri den kopuruarekin. Dena den, 162,6 milioi besterik ez da erabili, eta gainontzekoa banku-saldoetan gelditu da.

VI.3. 1998KO ABENDUAREN 31KO EGOE-RA-BALANTZEA

VI.3.1. Ibilgetua

Egoera-balantzean agerturiko ibilgetua 1.456 milioioa da. Zenbateko hori 1995 urtearen hasie-

ran honela kontabilizaturikoa da: inbentario fisiko bati 1996tik 1998ra bitarteko ekitaldietan erregistraturiko altak eta bajak gehituz.

Alabaina, abiapuntutzat hartzen den inbentario fisikoa, 1995eko urtarrilaren 1ean egina, ez da Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduari jarraituz eguneratua izan.

Gure gomendioa hauxe da: Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduari jarraituz, udalaren ondasunen inbentarioa urtero, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen, eguneratzea.

VI.3.2. Zordunak

Balantzean kobratzeke agertzen diren zorrak 180,5 milioioak dira, eta saldo hori onartzeko modukoa dela deritzogu.

Dena den, kobratzeke dauden kontuen kudeaketari dagokionez, honako hauek esan behar dira:

- Itzulitako ordainagirien kopurua nahiko handia da; hori dela-eta, horien kontrol, kontabilizazio eta kudeaketak lan astuna erakartzen du.

- Udalak borondatzeko epean soilik biltzen ditu tributuak, fase exekutibora pasa gabe, eta horrek eragiten du, neurri batean, dagoen itzulketa-kopurua. Badago Udalak kontrataturiko exekuzio-agente bat, baina isunak kudeatzera mugatzen da.

- Badaude ordainagiri batzuk, 1987tik 1993ra bitartekoak, kobratzeke daudenak eta kontabilizatu ez direnak, kobraezintzat jo direlako. Itxitako ekitaldietako zor horiek kobratzeko urrats bakarra izan da zordun bakoitzari zor dituen kontzeptuei buruzko jakinarazpenak bidaltzea, zor horien preskripzioa saihesteko. Azken jakinarazpena 1998an bidali zen.

- Ogasunari Udalak ez dizkio aurkeztu bere aldeko BEZ aitorten osagarri batzuk. Aitorten horiek 1996 eta 1997ko ekitaldietakoak dira eta 19,1 milioiko kopurua biltzen dute.

Aureko lerrokadetan azaldutakoan oinarrituz, hauxe gomendatzen dugu:

- *Kobratu beharreko kontuen kudeaketa gain - begira dadila eta zordunei jarraitu eta kobratzeko modu egokiagoa erabil dadila, bide exekutibora joz, legeak hori aurreikusten baitu itzulitako ordai - nagiriak kobratzeko.*

- *Kobratzeke dauden 1987tik 1993ra bitarteko ordainagiriak aztertu eta kobratu ahal izateko behar diren urratsak ematea bide exekutibotik; kobraezin suertatzen direnei ofizialki baja ematea.*

- *Ekonomia eta Ogasun Departamentuari 1996 eta 1997ko ekitaldiei dagozkien BEZ jasandakoari buruzko aitorten osagarriak aurkeztea, 19,1 milioi pezetako zenbatekoa biltzen dutenak.*

VI.3.3. Kontu finantzarioak

Kutxa eta bankuetako saldoak jasotzen ditu, guztizko zenbatekoa 215,1 milioioa izanik. Zenbateko hori honela dago xehekatua: kutxa, 0,2 milioi, eta bankuak 214,9 milioi.

Balantzean azaldutako kutxa- eta banku-saldok aztertu ondoren, onartzeko modukoak direla ondorioztatu dugu, salbuespen bakarra izanik Azagrako Udalarekin erdi bana irekita dagoen kontu korrante bateko 13,4 milioiko saldo hartzekoduna, hori zuzendu egin behar baita.

VI.3.4. Jasotako maileguak

Udalaren maileguak jasotzen ditu, honela xehekatuta:

Zertarako	Entitatea	Kontratuaren urtea	Nominala	Hasierako saldoa, 97/12/31n	Zor	Hartzeko	Azken saldoa 98/12/31n
Orubea eta txaleta	Rural Kutxa	1993	35.000.000	21.000.000	3.500.000	0	17.500.000
Euri-kolektorea	Euskadiko Kutxa	1993	38.000.000	26.604.423	3.865.358	0	22.739.065
Inbertsioak 93	Nafarroako Aurrezki K.	1994	89.000.000	68.233.331	5.933.334	0	62.299.997
Inbertsioak 94	Rural Kutxa	1994	136.000.000	119.905.012	7.538.417	0	112.366.595
Inbertsioak 93	Banesto	1997	83.000.000	83.000.000	8.300.000	0	74.700.000
Industrialdea hand.	Euskadiko Kutxa	1997	370.000.000	0	0	370.000.000	370.000.000
Guztira			751.000.000	318.742.766	29.137.109	370.000.000	659.605.657

Egin dugun azterketan oinarrituz eta aurrezki-entitateek berretsi digutenez, saldoak onartzeko modukoak dira, 1997an adosturiko 88 milioiko mailegu bat izan ezik: diruzaintzakotzat jotzen da eta “aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak” atalean erregistratuta dago. Birsailkatu egin beharko da, eta jasotako mailegu gisa kontuan

hartu beharko da, inbertsioak finantzatzeko mailegu normal bat baita.

VI.3.5. Epe laburreko zorrak

Kontu horrek 321,3 milioi pezetako saldoa dauka, eta honakko kontzeptu hauek jasotzen ditu:

Kontzeptua	97/12/31ko saldoa	Zor	Hartzeko	98/12/31ko saldoa
Onarturiko obligazioengatik hartzekodunak	8.374.909	772.199.649	767.793.931	3.969.191
Agindutako ordainketengatik hartzekodunak	147.160.068	757.246.209	770.471.373	160.385.232
Dirusarrerak itzultzeagatik hartzekodunak	146.282	596.829	496.860	46.313
Ente publikoak, kobratzeko eskubideengatik	10.597.382	26.064.034	26.033.093	10.566.441
Ente publikoak, kobratzeke dauden dirusarrerak	26.924.182	16.422.390	26.064.034	36.565.826
Entitate publikoak	8.648.465	16.270.549	20.340.599	12.718.515
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	477.620.578	431.542.636	51.021.683	97.099.625
Guztira	679.471.866	2.020.342.296	1.662.221.573	321.351.143

Guk eginiko azterketan oinarrituz, epigrafe honetan agerturiko saldoak onartzeko modukoak direla esan daiteke, honako hauek izan ezik:

- 88 milioiko mailegua, “aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak” izenpean erregistratua. Birsailkatu egin beharko litzateke, aurreko epigrafeko “jasotako maileguak” izenpera igaroz.

- Kontabilizatzeko dagoen saldo hartzekoduna, 8,5 milioi pezetako zenbatekoa daukana, industrialdearen urbanizazio-lanari dagokiona (V.2.5.c. epigrafea).

- 40 milioiko saldoa, kontabilizatzeko dagoena. Kirol-instalazioak eraikitze asmoz lurak erostearen ondoriozko zor bati dagokio (V.2.5. epigrafea).

- 18 milioiko saldoa, kontabilizatzeko dagoena. Ikastetxerako lur batzuk erostearen ondoriozkoa (V.2.5.a. epigrafea).

- Ordaindu beharreko kontuetako aspaldiko saldo txikiak, zuzendu beharrekoak.

- Nilsa-ri ordaindu beharreko kanona. Ente publiko izenpean erregistratua dago eta 36 milioi pezetako saldoa dauka. Enpresa horrekin argitu behar da. Arazoaren jatorria da Udalak ez duela likidatu saneamendu-kanona, zeina hiru hilabetean behin egin behar duen.

Gomendatzen duguna da epigrafe honetan erregistraturiko maileguaren saldoa birsailka dadi-la, ordaindu beharreko aspaldiko saldoak zuzendu daitezela, egiteke dauden kontzeptuak erregistratzea eta Nilsa enpresa publikoari ordaindu beharreko saneamendu-kanona hiru hilabetean behin likidatzea.

VI.4. UDALAREN FINANTZA-EGOERA 1998KO ABENDUAREN 31N

San Adriángo Udalak 1998an honako ratio edo adierazle hauek zeuzkan, 1997ko datuekin konparatuz —azken ekitaldi horren kontu-ikuskapena ez da egin—:

Adierazleak	1998	1997
Populazio-errola	5.340	5.241
Aurrekontuko superabita (pezetatan, milioiak)	95	(10)
Dirusarrerak, biztanle bakoitzeko (pezetatan)	161.579	118.474
Gastuak, biztanle bakoitzeko (pezetatan)	143.782	120.318
Finantza-zama, biztanle bakoitzeko (pezetatan)	9.989	8.004
Tributu bidezko dirusarrerak, biztanle bakoitzeko (pezetatan)	38.653	37.725
Kobrانتzen betetzea (ehunekotan)	95	85
Ordainketen betetzea (ehunekotan)	84	78
Zorpetze-maila (ehunekotan)	12,08	9,76
Zorpetze-muga (ehunekotan)	11,56	9,57
Aurrezki garbia (ehunekotan)	(0,52)	(0,19)
Langileria-indizea (ehunekotan)	26	33
Inbertsio-indizea (ehunekotan)	42	32
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (ehunekotan)	32	53

Erakutsitako ratioen azterketatik, honakoa da aipagarri:

- 1998ko ekitaldian 95 milioi pezetako aurrekontu-superabita izan da, 1997an 10 milioiko defizita izan bazen ere. Horren arrazoa 370 milioiko mailegu bat kontabilizatu izana da. Mailegu hori industrialdearen obrak finantzatzeko adostu zen.

- Arazoi beragatik, 1998ko ekitaldian biztanle bakoitzeko dirusarrera eta gastuek gora egin dute,

bai eta finantza-zama ere.

- Zorpetze-maila 12,08 raino igo da, muga 11,56koa izanik.

Hurrengo koadroan, San Adriánko Udaleko 1998ko informazioa alderatuta agertzen da, hainbat ratioi dagokionez, Nafarroako populazio-tarte bereko Udalek 1997rako izan zuten batez beste-koarekin.

Ratioak	5.000tik 10.000 biztanlera arte dauzkaten Udalak, 1997	San Adrián, 1998
Gastu arrunta, biztanle bakoitzeko (pezetatan)	64.078	77.640
Dirusarrera arrunta, biztanle bakoitzeko (pezetatan)	97.874	82.666
Tributu bidezko dirusarrera, biztanle bakoitzeko (pezetatan)	58.560	38.653
Zorpetze-muga (ehunekotan)	35	11,56
Zorpetze-maila (ehunekotan)	7	12,08
Zorpetze-ahalmena (ehunekotan)	28	nula

Era horretako alderaketa orokor batek berarekin dakartzan zailtasunak aitortuz, honako **ondorio** honetara iritsi gara:

- San Adriánko Udaleko gastu arruntak batez bestekoa baino 13.500 pezeta gehiagokoak dira, baina populazio-tarte horretako udalek batez beste dauzkaten dirusarrera arruntak baino 15.200 pezeta gutxiagokoak dira.

- Udaleko zergadun bakoitzak ekartzen dituen tributu bidezko dirusarrerak batez bestekoa baino 20.000 pezeta gutxiagokoak dira.

- Udalak zorpetzeko duen ahalmena ezereza da, horren mailak muga gainditzen baitu. Muga hori 5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko udalen zorpetze-muga baino askoz ere baxuagoa da.

1998an, Udalak bere dirusarrera arruntan ehuneko 12,08 erabili du finantza-zamari aurre egiteko, eta ez du behar adinako baliabide arruntik sortu inbertsio-gastuei aurre egin ahal izateko; horren ondorioa aurrezpen garbi negatiboa da.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak 130 milioi pezetako zenbateko negatibo metatua dauka 1998ko abenduaren 31n.

Egoera hori hobetu eginen da industrialdeko lursailak saltzean: horri esker, hainbat mailegu kitatu eta etorkizuneko finantza-zama murriztu ahalgo da. Hala eta guztiz ere, 1998ko ekitaldia ixtean Udalak pairatzen duen finantza-egoera kritikoa da, eta, funtsean, azken ekitaldietan eginiko inbertsioen finantzaketa-ezaren eta kobrantza-kudeaketa akastuna izatearen ondoriozkoa da.

VI.5. HIRIGINTZA

San Adriángo Udalak 1987tik dauzka Planeamenduko Arau Subsidiarioak. 1994an aldatu egin zituzten, eta behin betiko onespina 1994ko apirilaren 22an egin zen.

Arau Subsidiarioen xedea San Adriángo udal dermioaren hirigintza-antolamendu integrala egitea da.

Udalak ez dauka azterketa ekonomiko-finantzariorik eta ez du aldizkako azterlanik ere egiten eginen diren obren aurreikuspenen betetze-neurriari buruz, ez eta euren kostu ekonomiko eta finantzaketari buruz ere.

Lurzorua honela dago sailkatuta: hiri-lurzorua, urbanizatzeko egokia den lurzorua eta lurzoru ez urbanizagarria.

VI.5.1. Araudi orokorra eta berariazkoa

Honako hirigintza-ordenantza hauek daude:

- Eraikuntza-ordenantza orokorra
- Urbanizazio-ordenantza
- Izapidatzeari buruzko ordenantza
- Ingurumenaren babeserako sailkaturiko jardueri buruzko ordenantza

VI.5.2. Antolaketa-egitura

Obra txikiei buruzko aholkua ematen duen aparejadore bat dauka Udalak. Obra handietarako, txostena arkitekto bati eskatzen zaio. Idazkariak ere egiten ditu hirigintzari buruzko txostenak, eta Arau Subsidiarioen aldaketak izapidatzen ditu; bestalde, administrari batek proiektuak artxibatzeko, lizentziak emateko eginkizunean, jendeari erantzuten eta beste zeregin batzuetan laguntzen du.

VI.5.3. Hirigintza-betebehar orokorrak

Udalak eratu gabe dauka Lurzoruaren Udal Ondarea.

Ondare horretatik lorturiko baliabideak ez zaizkio espreski lotu hori kontserbatu, mantendu eta handitzeari.

Urteko aurrekontuan ez da baliabide arrunten ehuneko 5 kontsignatu Ondareko inbertsioetarako.

Udalean ez dago:

- Udal ondarea eta horren aldaketak jasotzen dituen udal inbentario eguneraturik.
- Orubeen eta urbanizatu gabeko lursailen erregistrorik.
- Hirigintza-aprobetxamenduen transferentzien erregistrorik.

VI.5.4. Hirigintza-garapena

Oro har, planeamendua ekimen pribatuz burutzen da, urbanizazio-proiektuen bitartez.

VI.5.5. Hirigintzako aldaketak

Aldaketa ugari egin dira Arau Subsidiarioetan; horien arrazoiak, batez ere, poligonoaren handitzea eta zerbitzu tertziarioak izan dira.

Aldaketa horiek garrantzitsuak direnez gero, gomendagarria litzateke Arauak berrikustearen beharraz pentsatzea.

VI.5.6. Hirigintzako diziplina eta kontu hartzea

Udal lizentzia beharrezkoa da obrak egiteko.

San Adriánen ohitura hedatua dago obra edo konponketa txikiak egiterakoan lizentzia hori eskatzeko. Gainera, udaltzaingoak kontrol txiki batzuk egiten ditu udal lizentzia edukitzearen betebeharra bete dadin.

Ez da hirigintzako arau-hausteen ondoriozko zehapenik ezarri, eta ez da desjabetzerik edo nahitaezko salmentarik ere egin.

Eginiko deskribapenean oinarrituz, hauxe gomendatzen dugu:

Hirigintzaren arloko betebehar orokorrak bete daitezela, hala nola lurzoruaren udal ondarea era-tzearena, lurzoruaren inbentarioa egitea eta orubeen erregistroa egitea, eta urteko aurrekontuan baliabide arrunten ehuneko 5 lurzoruaren egiteko inbertsioetarako kontsignatzea.

VI.6. ERAKUNDE AUTONOMOAK

VI.6.1. Radio San Adrián

1997an Udalaren Osoko Bilkurak eraturiko erakunde autonomia; fiskalizaturiko ekitaldian ez du jarduerarik izan.

VI.6.2. Musika Eskola

Udalak 1997an eraturiko erakunde autonomoa. Nortasun juridiko berekia du, eta horren gobernu-organoa Patronatuko Batzordea da, zeinak idazkari bat hautatuko baitu espedienteak eta artxibokoak diren dokumentuak gordetzeko.

1998an Patronatuak aurkezturiko betetzea 10,5 milioikoa da, eta urtearen azken hilabeteak soilik jasotzen ditu.

Udalak ez du inolako kontrolik egiten Patronatuaren gain, eta ez da Udalarekin koordinaturiko kontabilitate- eta kudeaketa-prozedurarik ezarri.

San Adriángo musika eskolak, erakunde autonomoa den aldetik, Udal batek formalizatu behar dituen dokumentu, liburu eta abar berberak formalizatu behar ditu. Jakina: aurrekontuen eta aurrekontuz kanpoko kontabilitatea, ondare-kontabilitatea eta horri dagokion balantze eta emaitza-kontua, inbentarioak, diruzaintza eta abar egitea nahiko konplexua da, eta horretarako behar adina langile eta bitarteko tekniko eduki behar da. Gure iritziz, horrelako lana ezin zaie eskolako irakasleei –zeinak behin-behineko langileak diren– harrarazi, ezta Patronatuko Batzordeko idazkariari ere.

Baliabideen eraginkortasuna lortzearren, komenigarria da jadanik lan hori Udalarentzat egiten duten Udaleko langile eta bitarteko teknikoak erabiltzea legezko betebeharrak horiek betetzeko; are gehiago kontuan izanik musika-eskolaren

barne kontrolaren erantzukizuna Udaleko kontuhartzailearena dela eta berari dagokiola kontu-orokorra osatzea.

Ildo beretik, gogoan izan behar da langileria-gastua eta nomina egitearena Patronatuko gastuen ehuneko 97,51 direla eta kudeaketa-lan hori 1998ko erdialdera arte Udalak egin duela. Era berean, dirusarreraren ehuneko 40 Udalaren baren edo Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak dira, eta gainontzekoa matrikulak eta ordainagiriak dira.

Eginiko iruzkinen ildotik, hauxe gomendatzen dugu:

- *Musika Eskolaren egitura eta funtzionamendua kontuan izanik, Udalak gogoeta egin dezala erakunde autonomo hori mantentzearen balioari eta komenigarritasunari buruz.*

- *Betiere, Udalak kontabilitate, kudeaketa, kontu-hartze eta koordinazioko prozedura eta jardunbideak ezarri beharko ditu etorkizunean organismo hori behar bezala kontrolatzen dela ziurtatzeko, eta horren kontuak Udalak bere urteroko aurrekontu eta likidazioan sartu beharko ditu.*

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 2an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA

- Dirusarreraren betetze maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze maila = $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetzearen muga = $\frac{\text{Dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze ahalmena = Muga- zorpetze maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Dirusarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Dirusarrera arruntak}} \times 100$
- Langileen indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko obligazioak}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Dirulaguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Dirusarreak biztanleko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanleko = $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanleko = $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak (1-4 kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko dirusarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanleko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

NAFARROAKO KONTUEN GANBARAK TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA

San Adriángo Udaleko behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak jaso ondoren, honako hauek aintzat hartu eta sartu ditugu txostenaren eranskin gisa:

- PSN-PSOE Udal Taldearen alegazioak; PSN-PSOE Udal Taldekoa den San Adriángo Udaleko zinegotzi batek aurkeztu ditu, eta aintzat hartuak izan dira 1998ko kontuei buruzko txostena itxi zen egunean Emilio Ruiz jauna –zeina udal talde horretakoa den– zelako Udaleko arduraduna.

- Jesús Ángel Mendoza jaunak, zeina Udaleko gaur egungo arduraduna baita, izenpeturiko alegazioak.

PSN-PSOE UDAL TALDEAREN ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA

1. alegazioa

Txostenean aipatzen dugu Industrialdeko lursailak saltzeak udalaren finantza-egoeran 1998ko ekitaldia itxi ondoren izanen duen eragina.

Salmentaren zenbateko zehatzak ez ditugu aipatzen, hain zuzen ere, 1998ko ekitaldia itxi ondoren ere muntadun diren beste faktore ekonomiko batzuk izan direlako, hala nola kreditu eta inbertsio berriak. 1999ko ekitaldia ixtean zegoen finantza-egoera eguneratzea ez zen gure txostenaren helburua (esan dezagun, bidenabar, ekitaldi hori onesteke eta likidatzeke dagoela).

2. alegazioa

Industrialdearen urbanizazio-lanen ondoriozko 8,5 milioi pezeta hartzekodunen artean erregistratu gabe egotearen zergatia, txostenean adierazten genuen bezala (V-2-5-c atala), kontabilitate-errore bat da.

3. alegazioa

Alegazioan eginiko iruzkinak zuzenak dira; izan ere, ikastetxerako lurrak erosteak Udalaren Osoko Bilkurak harturiko erabaki bat du oinarri.

Dena den, txostenean eginiko iruzkinak (V-2-5-a atala) ere zuzenak dira, ez baita administrazio-espedienterik ireki, eta erosketa hori oinarritu ahal izateko konbtratu sinaturik ere ez baitago.

Hain zuzen ere, horrexegatik da eztabaidagai ordaintzeke dagoen zenbatekoa; txostenean mugatu gara esatera beste 18 milioi daudela ordaintzeke, Udaleko gaur egungo arduradunaren esanetan.

4. alegazioa

BEZ kontzeptuan kobratzeke dagoen 19,1 milioiko kopurua erregistratuta dago jadanik zordun kontzeptupean, eta, beraz, kontuan hartua izan da Udalaren 1998/12/31ko ondare-egoeraren agerpenean. Kobrantza hori gauzatu ahal izateko aitorpen osagarriak aurkeztea da egiteke dagoena.

UDALEKO GAUR EGUNGO ARDURADUN JESUS ÁNGEL MENDOZA JAUNAREN ALEGA- ZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA

Udaleko gaur egungo arduradunak aurkezturiko eta Udaleko Idazkariak bere babesa eman dien alegazioen aurrean ez daukagu erantzuteko gauza askorik.

Alegazio horiek sendotu egiten dute gure txostenean egindako iruzkinen oinarria. Iruzkin horietan Idazkari eta Kontu hartzaille-Kontabilitate artean behar bezalako lankidetzak eta koordinaziorik ez egoteak udalaren kudeaketan eragin nabaria zuela esaten zen.

Ganbara honek ez du bere gain hartu behar txostenean eta horri aurkezturiko alegazioetan agerian utzitako gertakarien eragile nor den ebazteko eginkizuna; gure ustez, horretarako erantzukizuna daukaten Udal organoek udalaren barnean egin beharrekoa da hori.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 2an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	---